

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Alkatearen 3/2025. Ebazpena, langile lan kontratuduna izendatzekoa

Zuhatu Kuartangon (Araba), 2025eko urtarrilaren 24an, 08:00etan, nik, Miren Meabe Carro alkateak, eratuta bulego ofizialean, eta Unai Anda Gonzalez idazkariak lagunduta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.g) artikulua esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, ebazpen hau ematen dut:

Alkatearen 65 Ebazpenaren bidez onetsi ziren Kuartangoko (Araba) Udaleko administrari laguntzaile plaza, zerbitzu askotarako behargin plaza bat eta garbitzaile plaza bat lehiaketa bidez betetzeko oinarriak eta deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren esparruan. Ebazpen hori ALHAOn argitaratu zen, 62. zenbakian, 2022ko maiatzaren 30ean.

ALHAOn (146 zk., 2022ko abenduaren 21ekoa) osorik argitaratu ziren plaza horiek lehiaketa bidez jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri orokorrak eta espezifikoak.

Urtarrilaren 6an, jatorrizko agiriak aurkeztu zituzten, eta eskaeran aurkeztutakoekin bat zetozela egiaztatu zen.

Hauek ere aurkeztu dituzte:

1. Zinpeko adierazpena edo hitzemea, kargu publikoa betetzeko ezgaituta ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik diziplina espediente bidez bereizita ez dagoela adierazten duena.

2. Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako bateraezintasun zioen eraginpean ez dagoela dioen adierazpena.

2025eko urtarrilaren 8an, alkatearen 1/2025 Ebazpenaren bidez, hautagaien behin-behineko izendapena egin zen.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorritik, eta indarreko legeriak eta, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 21.1.h) eta 102.2 artikuluek, Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren (TATB) 136. artikulua (2024-196 2024/11/15) eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak ematen dizkidan eskumenak baliatuz. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. María Luisa Murga Martínez langile lan kontratudun finko izendatzea; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrari laguntzailea; C2 taldea; 18. maila; 2. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun datarik gabe; lanaldi osoa.

BIGARRENA. Pedro Daniel Marichal González langile lan kontratudun finko izendatzea; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: zerbitzu bereziak (zerbitzu askotarako behargina); LT taldea; 2. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun datarik gabe; lanaldi osoa.

HIRUGARRENA. Margarita Caramés Oliva langile lan kontratudun finko izendatzea; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: zerbitzu bereziak (garbitzailea); LT taldea; 2. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun datarik gabe; lanaldi partziala.

LAUGARREN. Ebazpen hau jakinaraztea izendatutako izangaiei, eta errekerimendua egitea langile lan kontratudun finkoari dagokion lan kontratua sina dezaten. Kontratua 10 egun balioduneko epean sinatu beharko da, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

SEIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea Kuartangoko udalbatzari, horretarako egiten den lehenengo bilkuran, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 42. artikulua betez.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke udal honetako alkateari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritik, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakiz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berriaz ebatzi edo isilbidez ezetsi arte.

Nolanahi ere, komenigarriago jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Zuhatzu Kuartango, 2025eko urtarrilaren 24a

Alkatea

MIREN MEABE CARRO